



2017ko ESLEIPENAK

Kaixo, lankide.

Enpresak dagoeneko 2017ko esleipenei buruzko informazioa argitaratu du. Eskainiko dituen lanpostu, mugimendu eta hauetara deituak izango diren hautagaien datuak jasotzen ditu deialdiak, egutegi osoarekin batera, besteak beste.

Prozesua honela banatuko da:

- ✓ **1. Esleipena:** plaza hutsak (plaza berriak, ukoak, jubilazioak) eta liberazio sindikalak eskainiko dituzte (hautagaien talde bakarra).
- ✓ **2. Esleipena:** Finko zein LEP artekoentzat mugimenduak eskainiko dituzte (1. taldean finkoak eta 2. taldean LEP artekoak).

Honakoa izango da gaurtik aurrerako **egutegia**:

NOIZ	ZER
<i>Uztailak 11</i>	Deialdiaren argitalpena Eskainiko diren lanpostuen, mugimenduen eta deituak izango diren hautagaien 1. behin-behineko zerrenda
<i>Uztailak 13</i>	Ukoak eta borondatezko eskaerak aurkezteko eguna
<i>Uztailak 17</i>	Hautagaien 2. behin-behineko zerrendaren argitalpena
<i>Uztailak 18</i>	Hautagaien zerrendari erreklamazioak aurkezteko eguna
<i>Uztailak 19</i>	Lanpostuen eta hautagaien behin-betiko zerrendaren argitalpena
<i>Uztailak 20</i>	Esleipenak 1. Txanda, 16:00etan. Irailak 1etik aurrera erabilgarri dauden hautagaiarentzat. 2. Txanda, 17:00etan. LEP arteko zein finkoendako mugimenduak.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus

Esleipenetan eskainiko dituzten lanpostuak eta mugimenduak honela banatu ditu enpresak, **behin-behinean**:

ZER	ZENBAT	NON	HAUTAGAIK
PLAZAK (berriak, ukoak, jubilazioak)	5	1. Txandan	Irailak 1etik aurrera ordezkoen zerrendan aurrera erabilgarri daudenak
Liberazio sindikalak	11	1. Txandan	Irailak 1etik ordezkoen zerrendan aurrera erabilgarri daudenak
Mugimenduak	47 jardun osoan 26 jardun partzialean	2. txandan	Mugituak izango diren finko zein LEP arteko kontratudunak

Ukoak, borondatezko eskaerak (2 eredu ezberdin dira) eta hautagaien zerrendari erreklamazioak Haurreskolak Partzuegoaren **egoitzan bertan edo helbide elektronikoz bidez** (lurrealde bakoitzeko Pertsonal Zerbitzuan) aurkeztu ahal dituzue (goizeko 08:00etatik arratsaldeko 14:00etara).

Zuen ordezkapen edo LEP arteko kontratuei **uko eginez gero**, kontuan izan behar duzue ordezkoen zerrendan zuen **postua mantentzea ziurtatzen duzuela soilik**; postu horren arabera, deituak izango zarete, edo ez (hautagaien zerrendan). Gogoratu baita ere, borondatezko ukoa izanik, **ez duzuela izango langabezia eskatzeko aukerarik**. Beraz, erabakia hartu baino lehen, ondo baloratu eta **ondo irakurri informazio guztia**.

Haurreskolak Partzuergoko web gunean argitaratutako **informazio guztiaren estekak** gehitzen dizkizuegu. Edozein zalantza baduzue, mesedez, jarri zaitezte gurekin kontaktuan.

- Deialdia:

http://www.haurreskolak.eus/adj_noticias/409.pdf

- 1. Eranskina: ESKAINIKO DIREN PLAZAK ETA ORDEZKAPENAK

http://www.haurreskolak.eus/adj_noticias2/409.pdf



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus

- 2. Eranskina: ESKAINIKO DIREN MUGIMENDUAK

http://www.haurreskolak.eus/adj_noticias3/409.pdf

- 3. Eranskina: LEP-ARTEKO KONTRATUAK ETA ORDEZKAPENAK ESKURATZEKO DEITUAK

http://www.haurreskolak.eus/adj_noticias4/409.pdf

- 4. Eranskina: BEHIN BETIKOEN MUGIMENDUAK

http://www.haurreskolak.eus/adj_noticias5/409.pdf

- 5. Eranskina: LEPartekoen MUGIMENDUAK

http://www.haurreskolak.eus/adj_noticias6/409.pdf

Gogoratu eskainiko dituzten lanpostuen zerrendek eta baita deituak izango diren hautagaien zerrendek ere aldaketak izan ahal dituztela uztailaren 17an argitaratuko diren behin-behineko 2. zerrendetan.